

BERGARAKO 2030 AGENDAREN PLAN ESTRATEGIKO JASANGARRIA ADOSTEKO PROZESUA  
**HERRITARREN LURRALDEA, BIODIBERTSITATEA ETA MUGIKORTASUNARI BURUZKO  
MAHAIAREN 1. BILERA**

**Bertaratutakoen zerrenda:**

- Lasier Herrero (LEBER)
- Larraitz Uribesalgo (Herri hezitzailea)
- Lander Juaristi (Herri hezitzailea)
- Igor Zorroaga (Ubera auzoa)
- Aiert Lizarralde (Mekolalde auzoa)
- Amaia Kapelastegi (Buruñao auzoa)
- Mila Elorza (Angiozar auzoa)
- Xabier Zabala (Arkitektoa)
- Adrian Cuadros (Arkitektoa)
- Maite Aristegi (Baserritarra)
- Aitziber Plazaola (Ereindajan)
- Kiko Alvarez (Biologoa)
- Iñaki Madinabeitia (Mendia Bizirik Elkarte)
- Aitor Aldazabal (Kukubaso elkarte)
- Joseba Susaeta (Kukubaso elkarte)

Bileraren hasiera-ordua: 18:00.

Udalak kontratatutako aholkulariza-enpresak "Begara 2030 egin herrixa" prozesuaren baitan orain arte emandako urratsak azaldu ondoren, parte-hartze saiora bertaratu diren herritarrei eskatu die aurkeztutako 2030 urtera begirako ikuspegia abiapuntutzat hartuz, gaurko bileraren arloekin zerikusia duten helburuak eta nahi izanez gero, ekintzak proposatzeko. Beraz, lehenik eta behin norberak barne-lanketa burutu du eta ondoren, herritarrek euren ideiak zein proposamenak azaltzeko tarte izan dute.

Hauek dira parte-hartze saioan zehar herritarrek egindako proposamenak, Udalak barne mailan egindako lanketan jasotako ekarpenez gain Bergarako Plan Estrategiko Jasangarria osatzeko balio izango dutenak:

**BIODIBERTSITATEARI ETA LANDA EREMUARI LOTUTAKO EKARPENAK:**

- Diagnostikoa gizakia erdigunean jarrita egin da eta ez da gainerako espezieen egoera edo ikuspuntua aintzat hartu. Gizakiaz gain, gainerako espezieen egoeraren ikerketak aurrera eramanez beharko lirateke, etorkizunera begira ezarri beharreko helburuak eta ekintzak ondo

- definitu ahal izateko. Biodibertsitateaz gain, bestelako alderdiei dagokionez ere gainerako espezieen perspektiba ere aintzat hartu beharko litzateke.
- Lurzorua bere osotasunean antolatu beharko litzateke hirigintza aldetik, ekosistemen zerbitzuen ikuspuntua ere hirigintza-antolakuntzan txertatuz. Bestetik, berdeguneen arteko loturak bermatzeko neurriak ezartzea ezinbestekoa da (hau da, berdeguneen sarea antolatu behar den beste arlo bat litzateke). Zerbitzu ekosistemikoak antolatu eta kudeatu behar ditu Udalak, lehentasunak ondo finkatuz.
  - Lurraldearen funtzionalitate ekologikoa berreskuratu eta mantendu beharko litzateke.
  - Hirigintzako Antolamenduko Plan Orokor berrian bioaniztasuna/natura ondarea behar bezala integratuko beharko lirateke. Funtzionalitate ekologikoa mantendu eta aktiboki kudeatu behar da. Lehenik eta behin, herrian dauden lursailak zein egoeretan aurkitzen diren aztertu beharko litzateke eta bertatik eratorritako ondorioetatik abiatuz, ondo planifikatu behar da lursailen kudeaketa. Bertako basoak mantendu eta etorkizuneko baso berriak bultzatzea ere lehentasunetako bat izan beharko litzateke.
  - Udalak lur berriak erosi beharko lituzke bertako zuhaitzen landaketak eginez, etorkizunean baso berriak sortzeko.
  - Lur publikoen "bankua" sortzea proposatzen da, bertara 1. sektoreari lotutako jarduera ekonomiko jasangarriak bideratzeko. Horrekin batera, lurzoru pribatuaren egoerari buruzko ikerketa bat burutu beharko litzateke, 1. Sektoreko belaunaldi-arteko erreleboa bermatzeko eta elikadura-burujabetzara zuzendutako jardueretara bideratzeko.
  - Lehen sektorean aritu nahi dutenen lana erraztu beharko litzateke, oztopoak zuzenduz eta baliabideak eskainiz.
  - Lurzoru pribatuaren eskaintza zabaltzea proposatzen da, erabilerak eta funtzioak aldezturik ondo finkatuz (basogintzarako, nekazaritzarako, etab.).
  - Landa inguruarekiko zaintza eta errespetua sustatu beharko litzateke.
  - Biodibertsitatea ardatz harturik, basogintza-eredu berri bat sustatu beharko luke Udalak. Horretarako, beharrezkoa litzateke basogintza jasangarriko plan bat lantzea lehen urrats moduan.
  - Laborantza-sektorea bideragarri izan dadin, Udalak bere esku dituen baliabideak eta eskumenak baliatu beharko lituzke. Aldi berean, hiri-lurrari ematen zaion garrantzia landalurrari aitortu beharko litzaike. Udalak eskualdeko landa-garapenerako elkarteetan izan beharko luke aktiboa.
  - Herri-lurra biodibertsitatearen mesederako ere bideratzea. Ildo honetan, aipatu da batzuetan talka egoten dela herritarren aisia-ohiturekin eta landalurreko bizitzarekin.
  - Basoak kudeatzeko planak diseinatzeaz gain, gerora horiek kudeatzearen beharra mahai gainean jarri da. Gainera, lursail pribatuetan dauden basoen edo kanpoko espezieen landaketen ateratze-lanak egin ondoren, lursailak eta herri-bideak oso egoera txarrean uzten dituzte enpresek/jabeek eta argi dago ez dagoela arazo honen inguruko inongo kontrolik.
  - Pagola bere osotasunean babestu eta kudeatu beharko litzateke (ez soilik pagomotzak).
  - Lur jabe pribatuak basogintza jasangarriaren ereduaz sentikortu behar dira eta beraiekin elkarriketa bultzatu.
  - Ikastetxeetan biodibertsitatearen kontserbazioaren inguruko pedagogia indartu beharko litzateke, babesteko lehenik eta behin ezagutu behar delako.
  - Biodibertsitatearen zaintzarako eragile ezberdinen saretzea eta elkarlana behar da.

#### **MUGIKORTASUNARI LOTUTAKO EKARPENAK:**

- “Erdigunea kotxe barik” ekimena bultzatzea, alde zaharra herritarrentzat berreskuratzeko. Horrekin batera, herrigunerako diseinatu zen bizikleta-bideen sarearen proposamena berreskuratu beharko luke Udalak, horrez gain auzoen arteko bidegorri bidezko loturak bermatuz.
- Aparkaleku perimetralak bultzatzea.
- Garraio publikoa indartzea eta herriaren eskalara egokitzea.
- Motordun ibilgailuen erabilera murrizteko edo behintzat, arrazionalizatzeko, neurriekin aurrera egitea. 30 KM/orduko herria bultzatu, trafikoa baretzeko eta herritarrek espazio publikoa berreskuratzeko (herritarra erdigunean kokatu).
- Auzoetara heltzen diren bidegorriak eraiki beharko lirateke (bestela, herritarrek beti autoz egin behar izaten dituzte euren joan-etorriak). Herri-arteko loturak bultzatzeaz gain, Udalak auzoen arteko loturak ere bermatu beharko lituzke.
- Eskola-eremu seguru, osasuntsu eta jasangarriak lortu.
- Bide-indarkeria gutxitzera zuzendutako neurriak ezarri.
- Espezie ezberdinen mugikortasunari buruzko ezaugarrien ikerketa burutu (konektibitate ekologikoa bermatu)
- Oinezkoen, bizikleten, patineteen, ... eta ibilgailuen inguruko mugikortasun plan jasangarria landu.
- Herrian jolasteko espazio seguruak diseinatu edo/eta dauden eremuak helburu horretara birdiseinatu.
- Mugikortasun jasangarriari buruzko ekimenak bultzatu
- Haurrak modu autonomoan eta seguruan desplazatzeko neurriekin aurrera egin
- Auzoetatik herrigunera eta alderantziz mugitzen diren herritarrei motordun ibilgailu pribatua ez den bestelako alternatiba bideragarriak eskaintzea eta horiei lotutako azpiegiturak egokitzea (bizikleta-aparkalekuak, etab.).

#### **HERRIGUNEARI ETA AUZOEI BURUZKO EKARPENAK:**

- Bergara espazio publikoaren ikuspuntutik inklusiboa izan dadin, pertsonei begira dagoen herria izan beharko litzateke (bizigarria, atsegina eta segurua haurrentzat, adinekoentzat, etab.), herriko kaleak eta plazak herritarrentzat berreskuratu beharko lirateke, eta abar.
- Auzo jasangarri eta inklusiboak ere bultzatu beharko lirateke.
- Lurraldearen Zatikako Planean auzoak ere aintzat hartzea.
- Auzoetako beharrak, egiturak eta tamaina kontuan hartzea, zerbitzu guztiak auzoetara enfokatu.
- Baserri guztietara ur-sareko ura eramatea
- Udaletxe barnean auzoetarako prozesu egonkor eta iraunkorra definitzea
- Auzoek udal aurrekontuetan parte hartzeko bideak aztertzea (auzoek udal aurrekontuetan partida handiago bat izatea).
- Auzoetako auzo-izaera lantzea

- Auzo guztietan plan estrategiko zehatz bat lantzea ikuspuntu denak lantzeko (ez bakarrik azpiegiturak), beharrak identifikatzeko.
- Auzoetako herritarrak zahartzen ari direnez, zahartzarorako egiturak sortzea (zaintza, ekintzak, garraioa, etab.)
- Auzoetako argiteria publikoaren sarea hobetzea (oker dauden kableak konpondu, etab.)
- Auzoetako uren kalitatea bermatzea
- Ahal den heinean, auzo guztietako ur-zikinen sarea kolektorera konektatzea.
- Herri barruko berdeguneak (berriak eta jada daudenak) saretzea eta potentziatzea.
- Auzoetako berdeguneak, basoak eta herri-bideak zein bide-ertzak zaindu eta garbi mantendu.
- Auzoetan ere nekazaritza-jarduerak sustatu, eta auzoetan 1. Sektorea bultzatzeko baliabideak eskaini.
- Auzoetako azpiegiturak ondo mantendu (herri gunean bizi diren herritarrek dituztenen parekoak).
- Eraikinen birgaikuntza ahalbidetu.
- Baserriak kultur-ondare bezala ere babestu.
- Landa eremuetako irisgarritasuna bermatu. Irisgarritasun jasangarria eta inklusiboa bultzatu.
- Garrantzitsua da herrigunearen birgaitzerako plan integral bat diseinatzea, hirigunea bizitzeko toki atsegina izan dadin ikuspuntu guztietatik (etxebizitzaren egoera, gertuko merkataritza txikia eta kalitatezkoa, hiri-paisaiaren kalitatea, etab.). Interesgarria da herrigunea naturalizatuz ingurumen kalitatearekin zerikusia duten alderdietan eragitea (soinu-kalitatea eta klima-aldaketara egokitzea, besteak beste).
- Auzoei buruz Udalak duen kontzeptua aldatu beharko litzateke; izan ere, auzoak bizitzeko gunek baitira eta inork nahi ez dituen azpiegiturak auzoetara bideratzea ez da egokia. Auzoak ez lirateke "2. Mailako" eremuak izan behar. Auzoetako bizitza duindu eta bertan bizitzen laguntzeko baliabideak behar dira.
- Ondare arkitektonikoa eta kulturala babestu eta balorean jarri beharko litzateke (bai herrigunekoak nahiz auzoetakoak eta landalurrean kokatutakoak).
- Zaharren egoitza berritzea
- Utzita dauden industria-eremuak zaharberritzea eta erabilera ematea
- Herriko parkeak modu egokian kudeatzea
- Soinu-kalitatea zaintzea.
- Industria-lurren eskaintza zabaltzea lurzoruen berrerabileraren bidez.
- Hutsik dauden baserriak modu ezberdinen bidez berriz ere erabiltzeko aukerak aztertu, eragile ezberdinekin elkarlanean.

Saioari amaiera eman aurretik, aholkularitza-enpresako kideek herritarrekin antolatuko diren hurrengo gaikako mahaien bileretan Plan Estrategiko Jasangarriaren hasierako zirriborroa aurkeztuko zaiela aipatu dute (zehazki, gaurko mahaiari dagozkion gaiak dakionez: lurralde antolamendua, biodibertsitatea eta paisaia, mugikortasuna) eta horrekin batera, epe motzerako lehentasun altuko ekintzak antzemateko dinamika bat egingo dutela ere.

Honenbestez, parte-hartze saioa 19:45etan amaitu da.